

Jakinarazpena: Eskaren emaitzarekin Tokiko Gobernu Batzarraren diktamena

Erabakiaren datuak:

Eguna	2024/09/17
Organoa / Órgano	Tokiko Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Kulturako, Euskarako eta Turismoko Ordezkaritzak, elkarteen lanaren garrantziaz jabetuta, beren helburuak betetzeko ahaleginean, diru-laguntzak ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen arabera eta jarraian zehazten diren datetan Tokiko Gobernu Batzarrak onartu eta argitaratutako araudiarekin bat:

Dirulaguntzen deialdia	Oinarriak noiz onartu ziren	Oinarriak GAOn noiz argitaratu ziren
Jarduera zehatzak / Jarduera zehatzak	2024/02/20	2024/03/01

JASO DIREN ESKAERAK

Guztira 13 eskaera jaso dira.

DESBIDERATUAK IZAN DIREN ESKAERAK

Behean aipatutako entitateen dirulaguntza eskaerak beste dirulaguntza lerro batetara **desbideratuak** izan dira

Erakundea	IFZ	Proiektua	Nora izan den desbideratua
ZUBIETA LANTZEN	G20952289	Zubieta biziberritzen	Euskararen eguneko egitarauak

ESKABIDEEN BALORAZIOA

Organo instrukziogileak eskaerak aztertu eta gero, balorazioa egiteko xedez sortutako Balorazio Batzordeak txostena egin du eta bertan azaldu dira egindako azterketaren emaitzak

Proiektuen balorazioak eta ondorioak erantsitako txostenean jaso dira.

Horiek horrela, ordezkaritza honek honako erabakiak hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK:

1. Behean aipatutako **dirulaguntzak ematea**, deialdiaren oinarriek araututakoaren arabera:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Puntuak	Kopurua
PAUSUMEDIA ELKARTEA	G20869772	ANTXETA2	42	1.973,67 €
Asoc Taller de Artes Escénicas de Donostia	G20539185	Formación integral de actores y actrices - Curso 2023/24	41	438,59€
Sexune elkarte	G01363027	sexualitatea euskaraz blai!	45	657,89€
Zurriola antzerki eskola	G20736377	2024 urteko programazioa	67	3.947,34 €
Zer Berri Kultur Elkartea	G75222489	KULTUR SHAREA 2024	66	1.140,34 €
GUKMEDIA KULTUR ELKARTEA	G31952666	ZARRAMARRA SAIOA	41	877,19€
BOZAK ELKARTEA	G75067611	EMAKUMEEN AHOTSA	44	526,31€
Ttan Ttakun Euskal Elkartea	G75001263	TTAN TTAKUN IRRATIA	45	1.096,48 €
IBAI IKASTOLAKO IKALEEN GURASO ELKARTEA	G20176079	GAU BELTZA 2024	56	506,59 €
IBAI IKASTOLAKO IKALEEN GURASO ELKARTEA	G20176079	KORRIKA TXIKIA 2024	56	361,84 €
ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL COMERCIO Y DEMÁS ACTIVIDADES ECONÓMICAS DEL BARRIO DE SAN MARTÍN	G67923797	KORRIKA KULTURALA BSM	49	1.233,76 €

2. Behean aipatutako **eskaerak ukatzea**, kasu bakoitzean ematen diren arrazoiengatik, oinarri arautzaileekin bat:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Arrazoa
ELKARREKIN KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIA	F75158444	"Euskara zure lagun hoberena" esku-hartze programa	Ez dator bat deialdiaren xedearekin

3. 12.760 €-ko **gastua** 2024ko Gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskara programari dagokion kontu-sailaren kontura ordaintzea.

4. Onartutako zenbatekoen % 70 irizpena onartutakoan **ordaintzeko agintzea**, eta gainerakoa, dirulaguntza justifikatzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu eta balioztatzean.

5. Erabaki hau **jakinaraztea** udal iragarki-oholean argitaratuta.

Eta hala jakinarazten da, jakin dadin eta behar diren ondorioetarako :

1.- Hamabost laneguneko epea izango dela, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Dirulaguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berriaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsoa harri ahal izango dela Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea dagoela, edo bestela zuzenean aurkatu daitekeela bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira 2024ko



➤ Euskara

azaroaren 12an jarria izanik.

Donostia,